

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



KAULDI ODRIOZOLA

URRATS BAT AURRERA

PUBLIZITATEA



Endañeta Zumaia

ENDANĒTAK ez du saldu bakarrik egiten, arreta ere ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TiEN21

ferreteria Galdona S.A.



burdindegia



Industriako era guztietako **material, tresna, pieza, eta osagarriak.**



JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17



BALEIKE 318

2022-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Amaia Urbietta Arruti
Elisabet P. Montero
- 6 **Izpiak eta hizkiak**
Arnaitz Rubio Aprea
Aratz Rodriguez
- 8 **Hainbat aburu** Ruth Salaberria Udabe
Eta orain zer?
- 9 **Errematea** Eire Maia Manterola
Bidea
- 10 **Elkarrizketa** Maria Maya Manterola
eta Juan Luis Romatet
Kauldi Odriozola: "Garrantzitsua da jendea zutaz gogoratzea jokalaria on bezala, baita pertsona on bezala ere"
- 15 **Erreportajea** Aritz Mutiozabal
Rockaren piztiak hiru buru ditu
- 20 **Erretratua** Onintza Lete Arrieta
Lana eta gozamena eskametan
- 25 **Heziketa** Mireia Centeno
Asko maite zaitut
- 26 **Plazan bazan**
- 29 **Zientzia eta ingurumena**
Gorka Zabaleta
Aitor Ossa: "Soilik eguzki plakak jarrita ez dugu energia trantsiziorik egingo"
- 33 **Argazki artxiboan barrena**
Juan Luis Romatet
Zumaiaiko bilakaeran zehar paseoan
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Antton Peñalba
Paradisu madarikatua
- 45 **Nire txanda** Felix Aizpurua
Berriz ere ilunpea etorriko da
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Progresioa

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue
Sara Iburguren

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus

Administrazio

arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaia
Udala



Elisabet P. Montero

TESTUA: AMAIA URBIETA ARRUTI

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Lotsak albo batera utzita, sorkuntzari eta imajinazioari hegalak ipini dizkio Elisabeth P. Monterok (Zumaia, 1993). *Henry* bere lehen liburua plazaratu berri du, gaztelaniaz, Amazonen bidez. Hasieran bere buruarentzat idatzitako "istoriotxo" zenak thriller eleberri itxura hartu du, eta eskuragarri dago Interneten.

Nolatan eman zenuen eleberri bat idazteko pausoa?

Betidanik gustatu izan zait idaztea, baina hau da jendeari irakurtzen uzten diodan lehen aldia, argitaratzen dudan lehenengo. Ideia nahiko modu txepelean ateratu zen. Duela pare bat urte, 2020 inguruan, Dr. Jekyll eta Mr. Hyden liburua irakurri nuen. Betidanik gustatu izan zait istorio hori, baina ez neukan liburua irakurrita. Uste nuen Dr. Jekyll eta Mr. Hyden ikuspegitik egongo zela azaldua, baina ez da horrela. Beraz, ez zen nik espero bezalakoa izan irakurketa. Arrazoi horrengatik, istorioa beraien ikuspuntutik kontatzeko, hasi nintzen idazten, nire kapritxo bat izan zen. Pixkanaka-pixkanaka hazten joan zen istorioa eta, azkenean, liburu hau jaio zen.

Protagonistaren begirada eta Londresko Big Ben ikus daitezke liburuaren azalean. Pistak al dira?

Bai, istorio originala Londresen gertatzen da. Nik ideia hori neukanez, bertan gertatzen da nire istorio guztia ere. Horrengatik ateratzen da azalean. Istorioa benetako tokietan gertatzen da, eta toki horien deskribapenak agertzen dira. Liburu guztian zehar ez, baina puntu askotan agertzen dira tokien deskribapen txikiak.

Nola deskribatuko zenuke liburua?

Thriller bat da. Misteriotsua ere bai, baina gehiago thrillerra.

Nolakoa izan da abiapuntuko istorio horretatik eleberria sortzera arteko prozesua?

Denera, bederatzi hilabete igaro ditut lana idazten. Hiru hilabete-edo neramatzen idazten, konfinamendua hasi zen, eta orduan baliatu nuen idazten jarraitzeko. Gero, lanean hasi nintzen; beraz, aurrerago hartu nuen berriz, beste

irakurketa bat eman nion eta atal gehiago sartu nizkion. Zuzenketekin eta horrelako gauzekin, berriz, beste hiru hilabete igaro nituen. Egia esan, ez nintzen oso kontziente eleberri bat izango zela egiten ari nintzen hori. Hasieran esaten nuen istorio hori niretzat bakarrik zela, lotsa ematen zidalako jendeak irakurtzeak.

Twitterren aktiboa naiz, eta hortik ezagutzen dudan batek esan zidan nahi zuela irakurri. Pasatu nion, eta esan zidan asko gustatu zitzaioela. Orduan, pentsatu nuen hari gustatu bazitzaion, agian posible zela jende gehiagori ere gustatzea. Zuzenketa egin aurretik, beta irakurleei – hobekuntzak proposatzen dituzten irakurleak – pasatu ohi zaie liburua. Haiek esaten dizute zer ez den ulertzen, edota zer jarri dezakezun beste modu batera; beraien iritzia ematen dizute. Irakurle batzuekin egon nintzen eta beraien iritzia oso positiboa izan zen.

Urtarrilean publikatu zenuen. Zer moduzko harrera ari da edukitzen?

Oso ona, irakurri dutenek esan didate asko gustatu zaiela. Batzuek esaten didate ea liburu gehiago idazteko asmoa daukadan, edota pertsonaia batzuei buruz gehiago nahi dutela jakin. Oso pozik nago.

Zuk idatzitakoa besteek irakurtzeak ematen zizun lotsa gaitzuko zenuen orduan, ezta?

Lotsa pixka bat ematen dit oraindik, batez ere irakurleak ezagunak direnean. Arraroa da, indarkeria dagoelako liburuan. Nik inoiz ez dut horri buruz hitz egin, baina horrelako istorioak gustatzen zaizkit, polizienak eta halakoak. Lotsa puntua ematen dit jendeak jakiteak horrelakoak idaztea gustatzen zaidala, baina nahiko gaitzuta daukat. Pixkanaka joan naiz gaitzitzen.

Eta gehiago idazteko asmorik baduzu?

Zerbait ari naiz idazten. Liburu hau idatzi nuenean, ordea, ez nengibilen lanean, ezta ikasten ere. Orain banabil lanean eta banabil ikasten, eta ez daukat denborarik. Badaukat proiektu bat esku artean antzeko ildotik doana, baina idazterako denbora asko pasatuko da. ■■■



Aratz Rodriguez

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Hondarribian jaiotzen nintzen, 1986an. Zumaiakoa ez banaiz ere –hiru urte eta erdi daramatzat hemen bizitzen–, orain gutxi, atletismoko emaitza batzuk zirela eta, zumaiartzat jo ninduten. Familiari mezu bat bidali nion: "Begira, dagoeneko adoptatu naute Zumaiara". Egia esa, inoiz ez dut izan lotura esturik nire jaioterriarekin, eta arraroa da hori, hondarribiarrek oso barrenean daramate eta Hondarribikoa izatea.

Txikitatik egin dut lan. Hamasei urterekin hasi nintzen lanean ostalaritza arloan. Astebururo egiten nuen lan, eta nahiko erreta bukatu nuen; ostalaritza utzi nahi nuen. Hondarribia eta Irun inguruan logistikako enpresa asko daude, eta logistikako goi mailako ziklo bat egin ondoren, segituan enpresa batean hartu ninduten. 2008an, krisialdiagatik, ziurgabetasuna nagusi zen. Nik lan egiten nuen enpresa beste batekin fusionatu zen, eta ez nekien lana mantenduko nuen. Garai horretan nire entrenatzailea Gipuzkoako Atletismo Federazioko zuzendaritzan zegoen, eta esan zidan idazkari nagusi postua atera zela. Orduan 22 urte nituen. Idazkari nagusi lana hartu nuen eta lau urtez egon nintzen han. Izen handiko lanpostua zen, baina, aldi berean, federazioa txikia zen, baliabide handirik ez nituen, eta ikasi ere ez nuen asko ikasten. 25 urterekin unibertsitatara itzuli nintzen, eta orain berriro logistika lanetan nabil.

Korrika egitea gustatzen zait. Esango nuke kirolaria baino gehiago atleta bezala ikusten dudala nire burua. 15 urterekin hasi nintzen korrika. Orain bi urte lesio bat izan nuen, eta korrika egin ezin nuen, bizikletarekin hasi nintzen. Txirrindularitza gustukoa dut, baina bai, nirea korrika egitea da. Indarra lantzea ere gustatzen zait. Egunen batean korrika egitea utziko banu, indarra mantentzeko emango nioke garrantzia.

1.500 metroko distantzia izan da nire gogokoa, nire betiko distantzia, baina orain urte batzuk distantzia aldatu nuen, eta 3.000 eta

5.000 metroko lasterketak egiten hasi nintzen. Beti aritu izan naiz pistan, baina negu partean, prestakuntza moduan, krosak eta asfaltoko lasterketak korritzen aritzen gara.

Erdi mailako atleta bezala ikusten dut neure burua. Jubenil eta junior mailetan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak izan nintzen. Seniorretan lehena, bigarrena eta hirugarren izan naiz hogeitau urte hauetan zehar 1.500 eta 3.000 metroan, baita krosetan ere. Senior mailan, 2011. urtean Espainiako txapelketako finalerdietara heldu nintzen 1.500 metroan. Zortzi edo hamar urte izango ziren orduan Gipuzkoako edo Euskadiko atleta bat ez zela distantzia horretako txapelketara sailkatu. Espainiako txapelketara joateko denbora minimoa lortzea erronka izan da beti niretzat, eta guztira bost aldiz sailkatu naiz finalerdietara: 2011n, 2017an eta 2019an pista estalian; eta 2017an eta aurten, 2022an, aire librean. Aurten, baina, ez naiz joango.

Orain gauzak pila bat aldatu dira. Iraupen edo iraupen erdiko maila ikaragarri igo da azken urteetan, eta orain EAEko bospasei neskek lortu dituzte txapelketara joateko denbora minimoak. Hori oso aberasgarria da kirolarentzat.

2017. urtean, Gipuzkoako inoizko hirugarren denbora onena egin nuen 3.000 metroan. 2000. urtetik denbora hobetu gabe zegoen. Bada, ordutik hiru neskek hobetu dute nire denbora, eta orain Gipuzkoako seigarren denbora onena dut distantzia horretan. 10.000 metroan, berriz, Gipuzkoako bederatzigarren denbora onena nirea da.

Emaitza oso garrantzitsua da niretzat kirolean, dena ez esatearren. Kirolak gauza asko ematen dizkizu, baina zu asko saiatzen bazara, eta jarritako helburuak lortzen ez badituzu, horrek frustrazioa sortzen dizu. Emaitza bat lortzen saiatzen gara, finean. Egia esan, postuetan ez naiz inoiz fijatu; beti atera naiz marka ona egitera. Hemendik 40 urtera ez da inor zutaz akordatu, baina zerbait geratzen bada, lortzen duzun rankinga izango da.

Noiz arte jarraituko dudana korrika? Nik uste bizitza osoan jarraituko dudala. ■■■





Eta orain zer?

Beste txanda gogor baten ondoren etxera iritsi eta gogoeta egin dut. Dagoeneko bi urte pasatu dira birus hau gure bizitzan agertu zenetik, gure mundua guztiz hankaz gora jarri eta inoiz pentsatu ez genuen egoera surrealista bizitzen hasi ginenetik. Bi urte gure sistema ekonomiko eta sozialean aldaketak gertatu direnetik, kili-kolo zegoen osasun sistemari izugarrizko danbatekoa eman eta egoera tamalgarri batean utzi duenetik. Milaka pertsonak beraien bizitza galdu eta beste hainbestek ondorioak dituztenetik. Ehundaka bizitza salbatu dituen bakuna kontrobertitua azaldu eta zientzialariak gizartearen ikuspuntuan jarri ditugunetik. Bi urteren ondoren, eta gizarteko biztanle gehienok

birus honen ondorio zuzenak edo zeharkakoak pairatu ondoren, tunel luze eta ilun honen bukaeran ote gauden galdetzen dut, argia ikusten hasiko al gara? Eta berriz gogoeta: zerbaite ikasi al dugu denbora honetan?

Lehenengo, konfinamendu gogor hartan pertsona hobeak aterako ginela uste genuen, guztiz indartutako gizarte eraikitzaile bat. Baina behin kalera irten ginenean, berriz gizarte indibidualista izaten jarraitu genuen, norberak bere interesak defendatzen zituen bitartean ospitaleak betetzen hasi ziren, lehenengo olatua, bigarrena, hirugarrena eta horrela jarraian seigarren olatura iritsi arte. Tartean pazienteak ospitalean, ambulanzian, ambulatorioan, ingresoak, arnasestuak,

beldurrak, bakardadea, negarrak, heriotza. Behin eta berriz, txanda bat eta beste bat, egun bat eta beste bat, asteak, hilabeteak eta urteak. Bitartean, politikariak neurriekin asmatu ezinik, inprobisazioa, orain balio duenak bihar ez, erraztu beharrean zailtasunak sortuz eta epaile askok beraien iritzi pertsonalak inposatuz.

Horren ondorioz, herritarrok nahastuta ibili gara, noraezean askotan, gure askatasun nahiak osasun egoerarekin talka eginez. Egunero zenbakiak ikusten genituen telebistan, irratan eta paperezko prentsan, kasu berrizko ingesoak eta hildakoak, zenbaki bakoitzaren atzean pertsona, familia eta istorio bat. Hasieran ikusgarriak ziren zenbakiak, kasu eginez, harritu eta segimendua egiten genuen;

HAUXE BAI JENEROA!



denborak aurrera egin ahala, gero eta arreta gutxiago, normalizatu arte; eta, azkenean, kasurik egin gabe. Baina zenbaki bakoitzaren atzean jarraitzen dute pertsonak, familiarek eta istorioek, olatu bakoitzean birusa lehenengo aldiz harrapatzen duen pertsonarentzat berria da egoera hori, berriz bueltan beldurrak, arnasestua eta bakardadea. Eta batez ere bakardadea, isolatu beharra, sintomak aurrera, arnasestua eta beldurrak. Osasun langileak olatuz olatu pazienteei eskua eman eta prozesuan bidelagun izaten saiatu gara, oinazeak kontsolatu eta sufrimendua murrizten, nahiz eta guretzat ere neketsua izan den denboraldi luze hau, lan kargaz betea. Eta orain, sei olaturen ondoren, orain zer?

Gudu baten ostean gertatzen den moduan berreraikitze fase bat behar dugu, bizi dugun sistemari buelta bat eman eta behar diren aldaketa ekonomiko eta sozialak planteatu, birusak sortutako egoera traumatikoen aurrean osasun mentalari garrantzia eman, gazteei etorkizun duina sortu; baina, batez ere, bizitzan zehar denok bezero izango garen osasun sistema publikoa indartu. Behar diren diru sarrerak eta ikerketan inbertituz, eta bertako profesionalen lan kondizio duinak bermatuz.

Gizarte moduan elkar gaitetzen eta benetan merezi duten gauzengatik borroka gaitezen, batez ere hain preziatua den osasun sistema publiko eta duin baten alde. ■■■

ERREMATEA



EIRE MAIA MANTEROLA

Bidea

Zerk egiten gaitu gu? Zergatik gara garena? Ziur noizbait pentsatu duzula ea nor zaren edo nola hautematen zaituzten. Agian, egunen batean zeure burua barrura begira topatzen duzunean, erantzunen bat jasoko duzu, edo ispiluaren aurrean, beste norbaiten ahotik... Iraganen izan garenak egiten gaitu, gure inguruko eta joan direnek ere egiten gaituzte, puzzle bat izango bagina bezala, baina nola batu pieza horiek guztiak? Gu gara galdera, baina baita erantzuna ere.

Ziurrenik aldaketa etengabe batean bizi gara, baina izanaren esentzia ez da aldatuko. Gertakizunek eta gure erabaki propioek definitzen gaituzte, egiten ditugun gauzek edo egin gabe uzten ditugunek. Bizitzak jartzen digu erritmoa eta gu bere martxan goaz. Hala ere, askotan zaila da barruko horri hitzak jartzea, eta are gehiago bihotza ahotik kanporatzea.

Nor izan nahi dugun pentsatzeak egun nor garen ere esaten digu, zer garen eta zer falta zaigun jakiteak. Geure burua gehiago ezagutzen dugula pentsatzen hastean, zulo batean murgiltzen gara: pixkanaka, geroz eta barrurago joanda, handiagoa egiten da, eta ohartzen gara uste baino gutxiago dakigula. Azken finean, zulo horren amaiera topatzea baino gehiago, bidea da gu egiten gaituena. ■■■



@garbincubeda



"Garrantzitsua da jendea zutaz gogoratzea jokalarari on bezala, baita pertsona on bezala ere"

KAULDI ODRIOZOLA ESKUBALOI JOKALARIA

Pulpon hasi zen hegaleko jokalaria Bidasoan hazten ikusi da azken zazpi urteotan. Nantesera egingo du salto hurrengo denboraldian, eta Frantziako ligan aritzeko aukera izango du. Europako txapelketatik itzuli berri da Kauldi Odriozola (1997), eta *Baleike*-k elkarrizketa hau egin dio, zilarrezko domina eskutan.

Testua: **Maria Maya Manterola eta Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Haren kirol ibilbidean mugarrira izango da 2022. urtea Kauldi Odriozolarentzat. Hungariatik itzuli berri da; bertan aritu da Espainiako selekzioarekin Europako onentsuenen artean. Bidasoako jokalaria da, baina Nantesekin arituko da datorren denboraldian Frantziako ligan.

Urte mugitua izaten ari da: fitxajea dela, Europako Txapelketa... nola bizitzen ari zara garai hau?

Ondo. Egia da Nantesek fitxatu ninduenean agobiatuta ibili nintzela. Erabaki zail bat hartu behar nuen, horren ondorioz nire bizitza asko aldatuko da eta. Uste dut onerako izango dela; talde hobeto batera egingo dut salto. Azken finean, nik nahi dudana egiten ari naiz. Ez naiz Zumaiatik atera 25 urtean. Hilabete bat egon nintzen zalantzekin, baina niretzat onena dela uste dut, eta aurrera egingo dut horrekin.

Askok kostatu zaizu Bidasoan utzi eta Nantesera joateko erabakia hartzea?

Pixka bat bai. Oso garbi neukan kirol ikuspegitik aukera onena zela niretzat. Talde indartsu bat da, Championsean aritzeko aukerarekin, Frantziako ligan beti oso goian dabilena... Baina zalantza neukan, Zumaian nire konfort-zonan bainago, eta aldaketa handia da hizkuntzaren aldetik ere.

Irunen jokatzeko dut orain, Zumaian nago nire familiarekin, bikotekidearekin, lagunekin... Hortik ateratzeak beldurra ematen du. Hala ere, edonork bisitan etorri nahiko balu ere, bost ordura dago kotxez. Hiri oso polita da, gainera.

Julen eta Gurutz Aginagalde Bidasoako taldekideak ere kanpoan ibili izan dira. Haiekin kontsultatu al duzu erabakia hartu aurretik?

Bi frantziar ditut taldean, eta haiekin hitz egin nuen, haiek hobeto ezagutzen dutelako bai herrialdea bai liga. Galdetu nien guztiek erantzun bera eman zidaten: zalantzarik gabe eskaintza onartzeko. Orain da saltoa emateko momentua, eta hori nabarmendu didate hitz egin dudanez.

Frantziaren hemen baino indar handiagoa du eskubaloiak.

Bai. Kluben profesionalizazioa ezberdina da. Espainiako Estatuan pandemiaren aurretik ari ziren gauzak hobetzen, baina pandemiak kalte handiak egin ditu. Hala ere etorkizun handia du. Europako txapelketan, adibidez, emaitza ona lortu dugu. Maila handia dago, eta saiatu behar dugu guk geuk hobeto saltzen eskubaloia hemen bertan.

Beste eskaintzarik izan duzu edo Nantes izan da ate joka etorri den bakarra?

Batzuk izan ditut azken urteotan, baina oraindik ez nengoen prest salto hori emateko. Gaztea nintzen, eta eskaintzak ere ez ziren hain tentagarriak. Ez zait gustatzen horrelakoetan asko arriskatzea. Nantesekoa atera da azkenean, eta uste dut oso aukera ona dela niretzat.

Garai ona oraintxe duzu, ala?

Nire taldean dauden asko beranduago atera dira. Jose Manuel Sierra, esaterako, 30 urterekin joan zen kanpora. Lehen Espainiako ligaren maila askoz indartsuago zen eta diru gehiago zegoen. Adin ona da [kanpora joateko]. Bidasoan zazpi urte egin ditut. Bigarren mailan hasi nintzen, eta zorte ona izan dut, ni hazten joan ahala kluba ere hazten joan delako. Asobal ligan bigarren postuaren borrokan egotea lortu dugu. Baina, etapa bat bukatu da, eta orain beste bat hasiko da.

Bidasoak maila bikaina erakutsi du, baina

Bartzelonaren aurka ez dago zer eginik, ezta?

Asobal ligan lortu dezakegun emaitzarik onena da bigarren geratzea. Bartzelona munduko talderik onena da, eta Championsean ere talde askori irabazten die. Aurreko denboraldian ez zuen partida bat bera ere galdu. Ilusioz joaten gara ahal dugun guztia lehiaztera, baina zaila da haien aurka aritzea. Espainiako gainerako taldeak batera baino aurrekontu handiagoa du klub horrek. Beraien helburua Europako txapelketa irabaztea da, eta halako taldeek munduko jokalaririk onenak beraien artean trukatzeko dituzte.

Zazpi urte egin dituzu Bidasoan. Prentsaurrekoa eman zenuenean taldea uztearen pena adierazi zenuen.

Bai. Urte asko dira, lagun asko ditut han, eta momentu on eta txar asko bizi izan ditut. Etapa izugarria izan da. Zorteak izan dit kirol aldetik emaitzek lagundu egin digutela, lehen urtean Bigarren Mailatik igo ginen, gero Asobal ligan mantendu ginen, mailara ohitzen joan gara, eta gero bigarren geratu eta Champions jokatzeko aukera zabaldu zitzaigun... Nik uste dut kluba azken urteotan asko hazi dela. Momentu honekin eta lagun onekin geratuko naiz. Nantesera joaten naizenean ere, haiekin kontaktua mantenduko dut. Oso ondo portatu da nirekin kluba; Bidasoak eman zidan aukera profesionaletara saltoa emateko, eta oso eskertuta nago.

Entrenatzaileek konfiantza izan dute zuegan.

Lehen urtean Fernando Boleak entrenatu zigun. Lehen momentutik izan zuen konfiantza nirekin kantxan; minutu asko jokatzeko aukera izan nuen

berarekin. Gero Jacobo Cuetara iritsi zen, eta harekin ere berdin. Aukera izan dut minutu asko jokatzeko, konfiantza guztia izan du nigan, minutu inportanteetan hor egon naiz... Gaztea zarenean jokatu egin behar duzu; momentu horietan ikasten duzu hobetzen. Alde horretatik klubean ez dut momentu txarrrik pasa.

Okerrena lesioa izango zen, edo?

Bai. Eskubaloian nahiko fuerte jokatzeko dugu, kolpe asko hartzen ditugu, eta batzuetan gaizki erortzen gara. Lesio txikiak izan ditut, baina larriena, joan den urtean. Beste jokalariek askok izaten dituzten lesioekin alderatuta, ordea, ez zen hain larria. Bizpahiru hilabete kanpoan egon nintzen, eta ez dut oroitzapen politik: taldetik kanpo zaude eta ezin duzu lagundu. Kirolaren parte da, ordea, eta horretatik ere ikasi behar da. **Kirolari profesionala zara, baina ikasketek garrantzia handia eman diezu.**

Ingeniaritza Elektronikoko hirugarren maila bukatuko dut orain, eta laugarreneko hiru ikasgai eta Gradu Amaierako Lana ditut egiteko. Espero dut datorren urtean Nantesen amaitzeko aukera izango dudala; Unibertsitatearekin hitz egin behar dut. Garrantzitsua da eskubaloian jokatzeko, baina formatzea ere bai; eskubaloia ez da futbola. Etorkizun baterako prest egon nahi dut.

Noiz arte jarraitu nahiko zenuke?

Nire lagunak ikusten ditut, lanean daudenak, eta pribilegiatua sentitzen naiz. Bidaia luzeak badaude, tentsioa ere bai, presioa, bolada txarrak... Baina gustatzen zaiguna egiten dugu. Egunean bi, hiru edo lau orduz entrenatu, jendaurrean partidak jokatu... Edonork nahiko luke gustatzen zaiona egiteki bizi ahal izatea. Garrantzitsua da noiz erretiratu jakitea ere. Ez nuke nahiko jendea nire oroitzapen txarrarekin geratzea, jokalekuan arrastaka. Nahiko nuke azken urtea maila onean nagoenean egin, baina horretarako oraindik urteak falta dira.

Ez zen erraza izango pandemia garaian harmaila hutsekin partidak jokatzeko.

Zentzu horretan nahiko txarra izan zen joan den urtea. Taldekideak gaixotzeko beldurrez geunden. Gaixotuz gero, hamar egun etxean pasatzeaz gain, bizpahiru partida galtzen genituen... Artalekuko harmailak beteta jokatu izan dugu, baina joan den urtean kiroldegia hutsik zegoen eta taldekide bati zerbaite esaten zenionean jokaleku guztian entzuten zen. Granollersen aurka, adibidez, Ligako bigarren postua lortzeko lehian, arraroa izan zen. Guk bakarrik ospatzen genituen golak.

"OSO GARBI NEUKAN NANTESERA JOATEA KIROL IKUSPEGITIK AUKERA ONENA ZELA NIRETZAT"

"NIRE POSTUAN MAILA HANDIA DAGO, ETA ZAILA IKUSTEN NUEN TXAPELKETARA JOATEA"

Zorionez, egoera hori bukatu da, eta jokalariek bezala zuen afizioaren bultzada sentitu dezakezue.

Artalekun beti izan da horrela. Pixkanaka ari da jende gehiago etortzen, eta errekuperatuko da lehengoa.

Europako txapelketan izan berri zara. Aurrez Espainiako selekzioarekin jokatu izan duzu, baina hau lehenengo txapelketa ofiziala izan da zuretzat.

Nire postuan maila handia dago, eta zaila ikusten nuen horrelako txapelketa batera joatea. Ez dut jokatzeko aukera handirik izan, baina asko gozatu dut. Esperientzia oso ona izan da, eta lortu dugun emaitza are hobea. Egia da finalean penaz geratu ginela, batik bat, galdu genuen moduarengatik: guk baloia galdu, 60. minutuan penaltiz gola jaso eta gol bakarrarengatik galduta... Gogorra da, baina uste dut txapelketa guztiari erreparatuta, oso ona dela emaitza. Txapelketa hasi aurretik ez genuke pentsatu ere egingo finalera iritsiko ginatekeenik. Talde indartsu asko zeuden, eta askotan zortea ere bada. Uste dut zortea ere izan genuela, finaleko partidaren ez ezik. Finalerdietan, Danimarkaren aurka, uste dut inork ez lukeela gugatik euro bat emango; baina, irabazi egin genien, eta ondo gainera.

Min gehiago ematen du final bat horrela galtzeak, edo?

Gol bat da. Baina egia esan, uste dut nahiago dugula horrela galdu, hamar golengatik baino. Geneukan dena eman genuen eta sentazio txarra izan genuen behin bukatuta, baina hor egon ginen.

Zilarrezko dominarekin itzuli zara, baina ez duzu asko jokatu.

Lehenengo txapelketa zen, eta joan aurretik ere banekien ez nuela aukera handirik izango. Aleix Gomez eta Ferran Sole munduko hegaleko jokalariek onenak ez badira, onenen artean daude. Esperientziak gozatu eta ikastera joan nintzen. Ferranek positibo eman zuen, eta deialdian sartu



Jokalari zumaiaarra Europako eskubaloi txapelketan irabazitako zilarrezko dominarekin.



Europako txapelketako finalean, Budapesten, herrikideen bultzada jaso zuen Kauldi Odriozolak.

ninduten. Finalean bi minutu jokatu ahal izan nuen. Denok nahi izaten dugu gehiago jokatu, baina gustura nago.

Europakoa mundu mailako txapelketa gogorrena izango da. Alde horretatik, merito galanta du zilarrezko domina lortzea.

Nik uste dut Europakoa gogorragoa dela mundu mailakoa baino. Azken finean, munduko txapelketan bizpahiru partida jokatu ditzakezu asiarren edo hego amerikarren aurka, eta egun horietan atsedean har dezakezu. Europakoan talde guztiak dira indartsuak, eta pixka bat despistatzen bazara, zureak egin du.

Gaztea zara, baina urte asko egin dituzu dagoeneko eskubaloian. Nola gogoratzen duzue orduko Kauldi? Gogoratzen dut Pulpon jokatzeko nuenean nire ametsa Asobal ligan jokatzeko zela, erdi profesional

"DENOK NAHI IZATEN DUGU GEHIAGO JOKATU, BAINA GUSTURA NAGO"

"EZ NUKE INOIZ PENTSATUKO ESPAINIAKO SELEKZIO ABSOLUTOAN JOKATU AHAL IZANGO NUENIK"

edo. Azkenean pixkanaka aurrera egin dut, eta ez nuke inoiz pentsatuko Espainiako selekzio absolutuan jokatu ahal izango nuenik. Debutatu nuen, orain Europako txapelketara joateko aukera izan dut. Zentzu horretan, anbizio handiz jarraitu behar dut selekziora joaten eta datorren denboralditik aurrera Nantesen ondo aritzen.

Nola bizi dute etxeok?

Nik uste dut gustura daudela. Hungarian han zegoen Zumaiako jendea: Andres, Joakin, Alex Oliden, *Kurro*... Beraiek ikusi naute hazten Pulpon, eta beraiek entrenatu naute. Beraientzat ere harro egoteko modukoa dela uste dut.

Hungariatik itzuli ondoren lehen bi edo hiru egunetan neukan presente gertatutakoa, baina jada itzuli gara egunerokora; Bidasoan hasi gara, partida pila bat ditugu aurrera begira.

Pertsonalki, ordea, ez zara aldatu. Mutil bera izaten jarraitzen duzu.

Zortea daukat eskubaloian ona naizela, baina pertsona bat gehiago naiz. Ez ditut nire lagunak aldatuko. Betidanik izan dut garbi inportanteena pertsona ona eta umila izatea dela. Zortea izan dut eskubaloian ondo jokatzeko dudala eta aukera dudala nahi dudana egitetik bizitzeko, baina nire familia dut, nire betiko lagunak, bikotekidea... Hori ez dut ezeretatik aldatuko. Garrantzitsua da jendea zutaz gogoratzea jokalaria on bezala, baina baita lagun on eta pertsona on bezala ere. ■■■

Rockaren piztiak hiru buru ditu

Disko berria grabatu berri du The Grace of Dionysus rock hirukote zumaiarrak, bere ibilbideko hirugarrena. Pandemiak behartutako geldialdia atzean utzi, eta diskoa zuzenekora eramatea izango dute helburu. Honen guztiaren inguruan hitz egin dute *Baleikerekin*.

Testua:

Aritz Mutiozabal.

Argazkiak:

Arnaitz Rubio Aprea.

Animalia mitologiko bat da, lehoi burua, akerraren gorputzeko zatiak eta suge isatsa duena”. *Kimera* zer den azaltzen ari da The Grace of Dionysus musika taldeko baxu jotzaile Abraham Larrañaga, Christos Foufounis abeslari-gitarristak eta Ion Sarasketa *Saras* bateria jotzaileak adi jarraitzen dioten bitartean. Hirukotearen hurrengo diskoaren izenburu hori jarriko diote, nahiz eta zalantza txiki batzuk zituzten grafia kontuekin: *Kimera*, *Khimera* ala *Quimera* izen behar duen. “Euskaraz jarriko diogu, bada? *Kimera*, bai. Aurreko lana ere Krekin idatzi genuen eta [*Katharsis*, 2018]”.

Eta zer berezitasun du Greziar garaiko alegiazko munstro horrek lan berriaren kontzeptu gisa hartzeko? “Amalgamaren ideia horrek erakarri gintuen. Rocka sortzeko eta ulertzeko dugun gure modua kontuan izanda, gure abestiak entzundakoan hainbat estilo etorriko zaizkio burura jendeari. Gure estilo propioan rockaren historiako arrastoak nabari direlako”, nabarmendu du baxu jotzaileak. Aldi berean, abestiek karga ironikoa dutela gaineratu du. “Izan ere, letrek egiten dute zeharkako kritika bat egunero bizi ditugun alderdi batzuen inguruan. Ikusten dira nolabaiteko kimera batzuk, ilusio zenbait, baina ia modu distopikoan bezala”.

Lau urte gorabeheratsu pasatu dira taldearen ibilian *Katharsis* argitaratu zutenetik, baina azkenean The Grace of Dionysus taldearen disko berria labetik ateratzear da. “Aurrekoa baino zuzenagoa da. Gitarraren doinua lehen baino astunagoa da orain,

"GURE ESTILO PROPIOAN ROCKAREN HISTORIAKO ARRASTOAK NABARI DIRA"

"ZENBAIT GAUZA ALDATU DIRA, BAINA GURE IZAERARI EUSTEN DIOGU"

fuzz soinu saturatua daukalako, eta, alde horretatik, gogorragoa dirudi”, aurreratu du Foufounisek. Kantuak konposatzeko garaian aldaketa bat egon dela nabarmendu dute taldekideek. Sarasen arabera, “askotan kostatu egiten da talde batek bere estilo propioa lortzea, eta uste dugu lan honekin mugari horretara iritsi garela”.

Melomanoak dira. Musikazale amorratuak, eta horren haritik, hainbat estilorekin jolasten dira, betiere rockaren oinarri sendoari leial. Abeslariaren esanetan, “egun ditugun abestien leloak lirikoagoak edo melodikoagoak dira, eta hobeto abes daitezke. Zenbait gauza aldatu dira, baina gure izaerari eusten diogu”. Azken finean, baxu-jotzaileak arrazoitzen duenez, “gauza bera egiten dugu, baina ematen dizun sentsazioa da rockeroagoa dela”.

Zuzenagoak orain

Dena modu naturalean atera dela dio hirukoak, ez dela zerbait behartua edo berariazkoa izan. Askotariko estilo eta generoak nahastea gustuko dute, hainbat erritmo txertatu, eta denboraren poderioz, sinpletzera jo dute konposatzerakoan, “baina horrek ez du esan nahi lan errazagoa denik”. Aurreko diskoaren aldean, *Kimera* lanean agian ez daude hainbeste aldaketa drastiko, eta, alde horretatik, “abestiak freskoagoak eta zuzenagoak” direla diote taldekideek.

Abestien luzeran ere aldaketa egon da: oraingoak laburragoak dira. Aurreko diskoko abestiak lauzpabost minutukoak ziren eta baten bat sei minutukoa. Lan berriko piezak hiruzpalau minutukoak dira, batez beste; izan ere, laburrenak bi minutu eta erdi ditu eta luzeenak lau minutu pasatxo. “Alde horretatik, jendeak entzuteko errazagoak dira”.

Behin gauzak laburrago eta zuzenago egiten hasita, bost abestiz osatutako iraupen ertaineko diskoa ondu dute. Zestoako Gaztain estudioan grabatzen aritu ziren urtarrileko azken astean, Eñaut Gaztañaga soinu teknikariaren gidaritzapean. Nolabait esateko, iragarritako itzulera baten istorioa izan da. “*Katharsis* argitaratu genuenean, kontzertu dezente eman genituen urtebete pasatxoan, eta 2020an estudioa sartzeko asmoa geneukan iraupen ertaineko disko bat grabatzera, baina 2019ko amaiera aldean trafikoko istripua izan nuen nik eta guztia bertan behera utzi behar izan genuen”, gogora ekarri du Sarasek.

Ondoren, pandemia etorri zen, eta murrizketen eraginez, Udalak lagatzen dien entsegu lokaletara joan gabe egon ziren denbora luzez. “Usadio zaharreko taldea gara gu, eta lokalean sortzen ditugu abestiak, guztiok batera, ekarpenak elkarrekin partekatuz eta eztabaidatuz”, arrazoitu du bateria jotzaileak. “Ez gara bakoitza bere etxean grabatu eta elkarri pasatzen aritzen den horietakoak. Momentuan egiten dugu egin beharrekoa”, gaineratu du Foufounisek. Hori horrela, luzatu egin zaie estudiorako buelta.

Katharsis diskoaren grabazio prozesuan izandako esperientzia onaren ondoren, *Kimera* jasotzeko orduan berriro ere Eñaut Gaztañagarekin gogoratu dira. “Ezagutzen gaitu eta dena errazteaz aparte, ideiak ematen ditu”, diote taldekideek. Larrañagak egun



"BI URTEKO
PANDEMIAREN
ONDOREN, ORAINXE
DA MUGITZEN
HASTEKO UNEA"

"POWER TRIO BATEN
ZUZENKOAK
GOZATZEKO AUKERA
EZIN HOBEA
ESKAITZEN DUGU"



Abraham Larrañaga, Christos Foufounis eta Ion Sarasketa.

haiek ekarri ditugu gogora: "Abestiak ongi landuta eraman genituen estudiora, eta egia esan ez zuen zailtasun handirik izan prozesuak. Gainera, Eñautekin oso ongi egiten da lan, giro oso atsegina jartzen du, eta abestiak diren bezala jasotzen ahalegintzen da". Azken emaitza bost *munstro* hauek osatzen dute: *Point Zero*, *Little wizards*, *Joker smile*, *I'm feeling good* eta *Inside*.

Abesti guztiak ingelesez dira, eta taldeko abeslari nahiz gitarrista Christos Foufounisek idatzitakoak dira. Gogotsu agertu da kantu bakoitzaren ifrentzuan dagoen mezua kontatzera, Pandoraren kutxa zabaltzera balihoa bezala. Taldearen ofrenda bat da *Point Zero*, eta Robert Johnson bluesmanaren bidegurutzea gogora ekartzen duen abesti bat dela dio. "Nahiko ambientala da". *Little wizards* beti besteen zain egoteari buruzkoa da: "Abesti honetan azti txikiari laguntza eskatzen dio lagun batek, eta honek ez dio laguntzen. Azken finean, zuk zeuk egin behar duzu zeure buruagatik". Biolentziari eta egungo mundu bortitzari buruzkoa da *Joker smile* kanta: "Badirudi irtenbide bakarra biolentzia biolentziaren aurka erabiltzea dela". *I'm feeling good* mantra



ironiko bat da, eta abeslariaren esanetan, “pasatu dugun miseria guztiaren ondoren, dela COVID-19 dela gainerako arazo guztiak, tipo bat zerutik erortzen da eta *I'm feeling good, and I feel so fine* esaten du. Berak ere sinesten ez duen mundu perfektu baten ironia da”. Azkenik, *Inside* abestia geratzen da: “Betiko moldeko maitasun istorio rock and rolleroa da”.

Zuzenekoetara buelta

Une honetan, hainbat zeregin dituzte esku artean, abestiak grabatzearekin ez baita bukatzen musika talde baten egungo egitekoa: diskoaren diseinuarekin dabilta lanean Javier Rodriguez donostiarrarekin; kontzertuak topatzen ari dira, diskoa txukun aurkezteko zuzenean, eta asmo dute euskal lurralde bakoitzean kontzertu bana jotzea; eta, era berean, *Little wizards* abesti singlearekin bideoklipa grabatu nahi dute. *Kimera* diskoa udaberriaren plazaratuko dute, apirilaren bukaera edo maiatza hasiera aldera. “Gainera, begiratzen ari gara zer euskarri digitaletan argitaratu diskoa. Era berean, pentsatu dugu biniloan kaleratzea, baina aztertu behar dugu denbora, kostuak eta gainerako gauza guztiak. Hori ere neurtu egin behar da pixka bat”, azpimarratu du baxu jotzaileak.

Behin diskoa kalean, kontzertuetan aurkezke tokatuko da hurrena. Kultur eskaintza oraindik ere nahiko geldo dago, baina pixkanaka suspertzen ari da. “Bi urteko pandemiaren ondoren, oraintxe da mugitzen hasteko unea. Badirudi hasi dela mugimendua, eta uda begira jaialdi ugari antolatzen hasi dira jada. Jaialdi berriak ere iragarri dituzte. Egia da saturazio handia egongo dela, musika talde guztiak itzuli nahiko dutelako oholta gainera. Horren adibide da disko ugari argitaratzen ari direla. Baina borroka horretan sartu beharra daukagu, zirkuitu horren barruan sartu, eta kontzertuak lortu ahal den moduan”, taldearen helburuen berri eman du Sarasek. “Dena dela nik uste dut gure tokia izango dugula Euskal Herrian, nahiz eta pandemiak dezenteko mina egin duen aretoetan”.

Zalantzarik ez dago The Grace of Dionysus zuzenekoetako animalia dela, kontzertuetan erakusten dituela bere benetako atzaparrak. “Energia gara mugimenduan”, laburbildu du Larrañagak: “Erritmo handia dugu, funketik ere asko dugu, eta *power trio* baten zuzenekoaz gozatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dugu. Hiru lagun gara dena ematen agertoki gainean”. Kimera bat agertoki gainean, bakoitza bere berezitasunarekin. “Rockaren piztia hiru bururekin”, biribildu du abeslariak.

Berehalakoan taldekide bakoitzaren izaera greziar mitologiako munstroarekin pareka ditzakezu: Christos Fofounisek lehoiaren presentzia grinatsua du, Ion Sarasek akerraren adarkadekin erasotzen du eta Larrañaga pazientea da, baina egoerak eskatzen duenean sugeak bezala isurtzen du pozoia. “Lehenik eta behin diskoa aterako dugu, eta ondoren kontzertuetan zuketuko dugu, guk geuk topera goza dezagun, baina baita jendeak ere”. Rockak basatia izaten jarraitzen duen seinale. ■■■

Lana eta gozamena eskametan

Igone Balentziaga arrain sailtzaileak 35 urte daramatza herriko Alde Zaharreko Balenciaga arraindegian lanean. Gurasoek zabaldu zuten denda 1974. urtean, eta haien lekukoa aspaldi hartu zuen arren, oraindik orain aitak laguntzen dio bentara goizero. Gustuko du arraina prestatzea eta jatea, eta errezeta simple eta zapoetsua ere proposatu die BALEIKERen irakurleei.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Lanbide eta plazer iturri ditu arrandegia eta hango generoak Igone Balentziagak (Zumaia, 1968). Zalantzarik egin gabe aitortu du arrain gustukoena erreboiloa duela, eta oporretara Peñiscolara (Herrialde Katalanak) joaten denean, txokoa plantxan eskatzen duela beti-beti. Duda pixka batekin esan du, berriz, lagunak etxera gonbidatuz gero txibiak tintan jarriko lituzkeela, "beti tintan", hori bai, eta marmitakoa era guztietara probatu eta gustatzen zaiola ere azaldu du: atunarekin, berdelarekin nahiz izokinarekin. "Oso goxoa gelditzen da horiekin ere", ziurtatu du. Zumaiar on bezala, olagarroa ere ezin da falta jaki gustukoenen artean. "Aitonak harrapatzen zituen, eta gure etxean beti ezagutu izan dugu olagarroa patatekin". Orain, era guztietara jaten du: patatekin, zopan, tomatetan.

18 urterekin hasi zen gurasoen arrandegian lanean, haiek 1974an zabaldutako bideari jarraituz, eta gaur egun lehengusuak eta biek eusten diote negozioari. Bigarren belaunaldiari hirugarrenik ez datorkio bultzaka atzetik, eta, printzipioz, erretiroa hartzen dutenean amaituko da Balentziaga familiaren bidea, "erretiroa hartu arte zabalik jarraitzeko modua edukiz gero, behintzat". Izan ere, urteroko zalantza du negozioak noiz arte iraungo duen. Herritarren ohiturak aldatu egin dira, bai erosketak egiteko

moduari dagokionez, baita kontsumitzen diren jakiei dagokionez ere. Zailtasun horiekin bizitzen eta aurrera egiten ikasi du Balentziagak, baina ezin eskurik sutan jarri etorkizunaz mintzatzean. "Hemen egunez egun begiratu behar da. Lehen askoz arrain mota gehiago zegoen, eta jendeak arrain gehiago erosten zuen. Orain jateko era ere aldatu egin da; plantxarako eta dena garbituta nahi izaten du jendeak", azaldu du.

Gaur egun Eroski dagoen horretan egon zen lehen azoka, eta barruan puestoak zeuden; gero, eraikinaren kanpoaldera (udaletxearen aldera) atera ziren puestoak, eta barruan Eroski jarri zuten. Gaur egun estalpean dago azoka, baina ez lehengo eraikinaren barruan. "Lehen, orain hamar edo hogeit hamar urte, denda gehiago zegoen, baserritarrak ere gehiago etortzen ziren plazara, eta giro biziagoa sortzen zen". Gauza bera gertatu da Alde Zaharrekin ere. "Garai batean denda gehiago zeuden, eta herritarrak hona igotzen ziren erosketak egitera; azken hamarkadan mugimendu asko galdu du herriko parte honek", kontatu du. Zorionez, bezero fidelak ditu arrandegiak, eta familia batzuek belaunaldiz belaunaldi berengana jotzen jarraitu dute.

Ofizioak berekin dakar goizean goiz jaiki beharra Pasaiako edo Getariako bentara joateko arraina eroatera, eta Balentziagak laguntzaile berezia dauka horretarako: aita. 04:00etan jaiki, arrain bila joan, bueltatu, gosaldtu eta



irrimarra



08:00etarako bezero bat edo beste zain izaten omen du arrandegian. “Goiztiarrak dira bezero batzuk”. Hainbeste urte pasatu eta gero, ederki ezagutzen ditu erosleak: “Herri bakoitzak arraina jateko bere ohitura dauka, eta arrandegi bakoitzak bere bezeroak. Gazteek plantxarako arraina nahi izaten dute; adinean aurrera doazenek, berriz, hezurrei beldurra izaten diete eta dena ondo garbituta ematen diegu. Adinekoek ez dute izokinik nahi, ez daude ohituta; gazteek, berriz, oso gustura eramaten dute, baita bakailao freskoa eta txibia ere, plantxan egiteko. Saiatzen gara gure erosleen ohituretara moldatzen. Tarteka ekartzen dugu zerbait desberdina, baina arrakastarik ez badu...”.

Kontsumo ohitura batzuk aldatzen ikusi ditu Balentziagak, eta beste batzuk, mantentzen: “Lehen herrian ohitura zegoen *kolayua* jateko [katu-arrainaren antzekoa, *Mustelus sp.*] eta orain ez dago arrain hori; katu-arraina, berriz, jaten da oraindik”. Zumaiarrak antxoazaleak eta atunzaleak direla uste du Balentziagak, eta nola

Igone Balentziaga

- Adina: 53 urte.
- Lanbidea: Arrain saltzailea
- Zer arrain jarriko zenuke irinetan, eta zer ogi arrailetan... Niretzat, legatza irinetan, eta oilarra, berriz, ogi arrailetan.
- Perrexila eskatzen da oraindik... Baserritarrek ekartzen digutenean jendeari partitzen diogu. Jendea zain egoten da. Saldari botatzen diote, eta arrainari ere bai, askok.

ez, baita olagarrozaleak ere. Arrain preziatuen zerrenda ere betikoa dela uste du: “Beti izan dira legatza, oilarra, mihi arraina...”. Bisigua ere saltzen dute, baina enkarguz. “Jendeak ez du etxean jaten bisigua, elkarte gastronomikoetan eta jatetxeetan baizik, parrillan ederragoa delako”. Arrandegitik desagertu diren arrainen artean, berriz, angulak aipatu ditu. “Saso batean egoten ziren, eta orain ez da ikusi ere egiten”.

Urtaro bakoitzak berea

Neguaeren amaiera gerturatzen ari den heinean, arrain mota gehiago ari dira agertzen portuetan eta arrandegietan. “Neguan zapore handiko arrainak jaten dira herrian, katu arraina esaterako, eta udan atuna eta txibia, batez ere, baita bakailaoa eta legatza ere”, laburbildu du.

Martxoan, berdela eta antxoa laster iritsiko dira arrandegira, eta bateratsu hasiko da ugaritzen beraien lana ere. “Guretzat urtarrila eta otsaila izaten dira sasoi txarrenak lanerako, Gabonen ondoren arrain gutxiago erosten dutelako herriarrek; garai onenak, berriz, Gabonak eta uda izaten dira. Gabonetarako, hori bai, aurrez ibiltzen da jende asko, eta txapiroak erosi, prestatu eta izoztuta uzten ditu”.

Garai batean, karroa hartuta arraina saltzera joaten ziren arrain saltzaileak trenez Zumaiatik Zestoara. “Aspaldi zen hori, eta sasoi hartan barrualdeko herrietan *tolla* asko jaten zen [gatzelaniaz *cazón*, *Galeorhinus galeus*], eta sardina eta antxoa ere beti izan da salgai, baita atuna ere, bere sasoiaren”. Gaur egun karroen beharrik ez dago arraina batetik bestera eramateko, eta arrandegietan Portugalgo nahiz Mediterraneoeko antxoa aurki daiteke, baita Danimarkako bakailaoa eta Norvegiako izokina ere. Hori bai, “hemengo antxoa bezalakorik ez dago, beste zapore bat dauka bertakoak”,

azpimarratu du. Negu partean, esaterako, Portugalgo nahiz Mediterraneoko antxoa izaten dute. “Martxoan zehar bertakoa egongo da. Herritarrek urte osoan eramaten dute antxoa, baina nabaritzen da bertakoa dagoenean”.

Arrantzako kuotekin urtero gorabeherak egon arren, arrain faltarik ez du sumatzen Balentziagak, “gaur egun Pasaiara arraina toki askotatik etortzen delako”. Bentan ere izaten da saltsa, ordea. “Arrain asko baldin badago ez da ezer gertatzen, baina gutxi baldin badago, batzuetan borroka asko egoten da arrain onena ekartzeko, denok genero bera nahi izaten dugulako”.

Bertako arraina jateko, bertako arrantzale eta baporeak behar ote dira? Balentziagak ez dauka horren erantzunik, baina uste du gutxi edo gehiago Getarian baporeek jarraituko dutela, eta hala bada, arraina egon egongo dela. Baporerik ez da egongo Zumaian, baina bai arraina itsasotik etxeratzeko ohitura, belaunaldiz belaunaldi igorria. “Jendea arrain txikietan ibiltzeko amorratua da Zumaian”, esan du Balentziagak. “Saso batean lapak, olagarroak, magurioak,

txoazkinak edo hamarra txikiak hartzen zituen jendeak... Badago ohitura hori”.

Aita ere beti ezagutu izan du itsasoan, txalupa motordunarekin, baina Balentziaga familiak ez zuen arrantzarekin lotura handirik arrandegia hartu zutenean. “Kamioilaria zen aita, baina eroriko bat izan ondoren, ezin izan zuen lan hartan jarraitu, eta arrandegia hartzea erabaki zuten amak eta biek, orduantxe libre gelditu zelako bat. Hutsetik hasi ziren; amak askotan ikusita zeukan arrainak nola garbitzen eta zatitzen zituzten, eta jardunez ikasi zuen guztia”, gogoratu du. “Amak bere kabuz ikasi zuen; nik, berriz, ama izan nuen andereño”.

Kazetariak eskatuta, errezeta erraza proposatu du Balentziagak *BALEIKE*ren irakurleentzat: izokina marinatuta. “Izokin zati bat hartu eta bi xerra egin behar dira, eta 48 orduz eduki hozkailuan gatz eta azukretan tapatuta (erdia gatz, erdia azukrea). Denbora hori pasatutakoan, urarekin garbitu, ondo lehortu, xerratu, eta nahi izanez gero, olio pittin bat bota; ekilore olio behar du”. ■■■




NON DAGO BALEIKE?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdean dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali martxoaren 21a baino lehen.

Saria: TIPITAKIN bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Urtarrileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 22 orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Mara Urbieto** bazkidea izan da irabazlea.

MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

Asko maite zaitut



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Egunero esaten al diezu zure seme-alabei asko maite dituzula? Gaurkoan gure seme-alabak maite ditugula adierazteko modu ezberdinez hitz egingo dugu, batzuetan hitzek baino eragin handiagoa daukatelako ekintzek.

Beraiekin denbora pasatzea izango litzake lehenengoa eta garrantzitsuena.

Gure seme-alabekin egotea eta gaudenean arreta eskaintzea oso esanguratsua da. Nahiz eta egun guztia etxetik kanpo pasatu, etxera ailegatzeko garenean, beraiekin jolasten bagara eta arreta eskaintzen badiegu, gure maitasuna erakutsiko diegu.

Errespetuzko tratua.

Alferrik da etengabe asko maite ditugula aipatzea, gero gutxiesten dituzten hitzak edo ekintzak erabiltzen baditugu. Maitatua sentitzeko, haurrak errespetatua sentitu behar du.

Horretarako, ezinbesteko izango da bere iritzi eta beharrei garrantzia ematea.

Kontaktua eskaini, besarkatu, laztandu.

Kontaktua eta gure gorputzarekin adierazten duguna haurraren garun

emozionalak berehala interpretatzen du. Goxotasunez hitz egitea, mugimendu lasaiak egitea... Egunerokotasuneko errutinetan komunikazio ez berbalak hitzezkoak baino pisu handiago izango du maitasuna adierazteko momentuetan.

Entzun. Beraiek esaten dutena garrantzitsua iruditzen zaigula erakusten diegu haurrak arretaz entzuten ditugunean. Esaten dutena benetan inporta zaigula ulertarazi behar diegu. Kasu batzuetan, ezin dugu hori bete, arrazoi ezberdinak direla eta. Horrelakoetan, garrantzitsua da haurrari adieraztea esaten duena benetan garrantzitsua iruditzen zaigula baina momentu horretan ezin diogula merezi duen arreta eskaini, eta beste momentu bat aurkituko duzula ondo entzuteko.

Mugak jarri. Mugak jartzea ekintza negatibo bat bezala ikusten dugu eta ikusten dute maiz. Nahi dutena

SEME-ALABEKIN EGOTEA ETA GAUDENEAN ARRETA ESKAINTZEA ESANGURATSUA DA

egiten ez uzteak askotan frustrazioa sortzen du. Baina, era berean, beraien ongizatea inporta zaigula adierazten du. Hor gaudela eta ardura bat dugula erakusten diegu mugak jartzen ditugunean.

Irribarreak eta konfiantzazko begiradak.

Presaka goazenean ere segundo horiek ongizate asko sortzen dute. Konplizitatea eta konexioa lortzen dugu keinu txikiak eta egunekotasuneko martxan eta gelditu ezin ditugun momentuetan, plazer parentesi txikiak sortzen dituzte.

Detalleak. Gustuko duten postreak erostea, eskolatik ateratzen direnean eskatutako bokata eramatea, eskatu duten jostailua eramateaz gogoratzea.

Akonpainamendua. Bere emozioak onartzen eta akonpainatzen ditugunean, hau da, beldur daudenean eta beldur hau ukatzen ez dugunean bere ondoan gauden bitartean, edo haserre daudenean eta haserre hori onartzen dugunean, nahiz eta bere jarrera ez onartu, gure maitasuna espresatzen ariko gara. Beraz gogoratu, benetako maitasuna gure eguneroko ekintzetan adierazten da hitzetan baino gehiago. ■

BA PELLO ZABALAK HORRELA KO MAPAK EGITEN ZITUEN, ETA DENAK ARANTZAZUKO SANTUTEGITIK, AIZU



BAI ASTUNA!



Eguraldi iragarpena

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.

BA PELLO ZABALAK HORRELA KO MAPAK EGITEN ZITUEN, ETA DENAK EUSKAL TELEBISTATIK, AIZU



BAI ASTUNA!




Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?


Mezu gordea

Esaera zahar asko eguraldia iragartzeko trukuak direla ematen du. Jarri iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu zer dioen honoko honek:



ALFABETOA





Irudi engainariak

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, osoantzekoak izan arren. Bereiz itzazu.

EGUZKIA BAI, BAINA EZ DU BATERE BEROTZEN

Bide batez, marraztu izeaziozu zakur iletzu bat alboan eta margotu.

HOZKIRRIA

LANGARRA

ERREKA-LAINO

ENBATA

ZIRIMOLA

BAINA ATERKIA BEHARKO DUT ALA EZ DUT BEHARKO?!

DENA LANBROTUTA IKUSTEN DUT

Zer?!

Ba al dakizu nola esaten zaion tramankulu honi? Haizearen abiadura eta norabidea neurtzeko balio du eta ez da A letraz amaitzen.

ISOBARA
ARRANPALO

BELOZIPEDO
ARRANGURA

HAIZAGAILU
ANEMOMETRO
UFADA-PALA

Bakoitzari berea

Letu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



Aita Mari
JATEXEA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com



AIZPURUA

L
I
B
R
R
U
D
E
N
D
A

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen seride eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61




Amama
libeterna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe · Hortz Klinika



Arantzabide, 3. behea • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56



OKI-EDER

Nagusia, 2 · tel. 943-86 15 21
ZUMAIA



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa
Arantzabide, 16 · Tel. 943-50 91 69



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 · Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Albaitaria
Ifaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadclinicivet.com
www.basadclinicivet.com

Goizez: 11-13 / Arratsaldez: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia
Larriklaburako: 605 72 87 07 · Etkez etxeko zerbitzua



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ■ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ■ asesoriarin@asesoriarin.com

"Soilik eguzki plakak jarrita ez dugu energia trantsiziorik egingo"

AITOR OSSA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INGENIARIA

Energiaren auzia, eztabaida teknologiko hutsa baino gehiago, gizarte eta bizimodu ereduari dagokion borroka kulturala da Aitor Ossarentzat: "Eztabaida ez da plaka batzuk jarri edo ez; eztabaida da zer herri eredu nahi dugun, zer bizimodu mota nahi dugun, oinarritzko beharrak nola asetuko ditugun".

Testua: **Gorka Zabaleta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Zumaia energia trantsizioaren bidean nola jarri aztertu zuen Aitor Ossa (1993, Arroa Behea) ingeniariak duela pare bat urte, Udalaren enkarguz. Zumaiarrok kontsumitzen dugun energiaren argazki zehatza egiteaz gain, aurrera begirako estrategiak proposatu zituen. Energia iturri berriztagarrien erabilera eta efizientzia energetikoa areagotzeaz gain, ezinbestekotzat jotzen du energia kontsumoa murriztea. Gaur egun, Goiener kooperatiban ari da lanean.

Energiaren gaiaz gehiago hitz egiten da gaur egun, baina gehienontzat argindarraren faktura bezain ulergaitza da.

Energia trantsizioaz hitz egiten da gehienbat, baina beste trantsizio batzuk ere beharko dira. Energia ez da isolatuta ulertu behar den diziplina bat, baizik eta gizarte osoa zeharkatzen duen oinarritzko behar bat. Energiarik gabe ez dago ezer. Ez da kasualitatea hain gai inportantea iluna eta ulergaitza izatea herritarrontzat, atzean enpresa handien interesak daude eta.

Beharrezkoa da herritarrak formatzea, ahalduntzea. Behintzat gardentasunez hitz egin behar da, zer den energia, zer energia mota kontsumitzen dugun, nola kontsumitzen dugun, zer baldintzatan, zeinena den, zeinentzat den, nondik datorren, zer onura dauzkan eta zer albo kalte.

Energiaren gaia ikuspegi askotatik azter daiteke; baina, agian, klima aldaketarekin duen loturagatik hartu du pisua eztabaida publikoan?

Bai, hala da. Kontsumitzen dugun energia gehienbat erregai fosiletatik lortzen da eta, prozesu horren ondorioz, berotegi efektua

"GAUR EGUNGO GIZARTE EREDUAN HAIN AZKARRA DA KONTSUMOA, EZ BAITA JASANGARRIA"

"GUK KONTSUMITU AHALA AGORTZEN EZ DIREN ENERGIA ITURRIEI DEITZEN DIEGU BERRIZTAGARRI"

eragiten duten gasak isurtzen dira atmosferara. Hori horrela izan da orain arte, oso merkea izan delako petroliotik energia kopuru handitan lortzea; baina horrek bere albo kalteak dauzka, karbono isuria gehiegizkoa delako eta horrek klima aldaketari eragiten diolako zuzenean. Eredu hori ez da jasangarria. Baina horrez gain, badago beste faktore bat: erraz eskura daitekeen petrolioa agortzen ari da. Gelditzen den petrolioa lortzea zailagoa eta garestiagoa izango da aurrerantzean, eta horrek eragingo du energia gutxiago izatea eskura mundu mailan eta, beraz, prezioek gora egitea. Konponbidetzat beste energia iturri batzuk eta energia transformatzeko beste modu batzuk planteatu dira: berriztagarriak direnak. Petroliotik hartu beharrean energia, berriztagarriak diren iturriak erabiltzea da planteamendua: haizea, ura, eguzkia, geotermia, biomasa... Horiek proposatzen dira klima aldaketari aurre egiteko irtenbide gisa.

Klimarekiko neutrala izateko helburua jarri dio Europako Batasunak bere buruari. Zer da klimarekiko neutrala izatea?

Berotegi efektua eragiten duten gasen isurketan balantzea zero izatea. Alegia, ez isurtzea atmosferara gure inguruak xurga dezakeena baino gehiago. Baina hori esaten denean ikuspegia mugatua da oso. Europa iparraldeko herrialdeek diote gero eta energia eredu jasangarriagoa dutela, baina ez da esaten jasangarritasun horren parte bat zeren bizkar lortzen duten. Demagun ikatzarekin argindarra sortzen duen zentral bat daukagula gure lurraldean. Azpiegitura hori hemendik Txinara eramaten badugu, esan dezakegu gure lurraldean CO₂ gutxiago sortzen dugula, baina mundu mailan ez dugu ezer aurreratua.

Zer da energia berriztagarria? Edo iturri berriztagarrietatik sortzen den energia esan beharko genuke?

Kontzeptuekin nahasmen handia dago. Plaka fotovoltaikoak ikusten ditugunean esaten dugu energia berriztagarria dela, eta ez da hori. Plakak dira teknologia bat energia iturri berriztagarri bat aprobeztatzeko, kasu honetan, eguzkia. Guk kontsumitu ahala agortzen ez diren energia iturriei deitzen zaie berriztagarri, kontsumitzen duguna baino gehiago birsortzen direlako berez naturan. Erregai fosilak ez dira berriztagarriak, gure kontsumo erritmoan agortu egingo direlako, naturak ez duelako astirik iturri horiek birsortzeko. Azken finean, garrantzitsuen da nola kontsumitzen den, eta ez hainbeste zer. Petrolioa askoz gutxiago kontsumituko bagenu jasangarria izango litzateke, beste milaka urtez izango genuke eskura. Baina gaur egungo gizarte eredu hain azkarra eta hain handia da kontsumoa, ez da jasangarria.

Askotan ez gara jabetzen teknologia edo tresna horiek fabrikatzeko ere lehengaiak eta energia behar izaten direla. Hori ere sartu beharko genuke gure "fakturan"?

Energia trantsizioan aintzat hartu beharrekoa da. Oso kontuan hartu behar da teknologia horrek izan duen energia kostuaren eta emango digunaren arteko balantzea. Ondo neurtu behar da teknologia bakoitzaren eraginkortasuna aspektu horretan. Eta beste paradoxa bat ere sortzen da: trantsizio energetikoa egin nahi dugu klima aldaketari aurre egiteko, horretarako inbertsio handiak aurreikusi ditugu energia iturri berriztagarriak aprobeztatzen



Zumaia energia trantsizioaren bidean nola jarri aztertu du erroarrak.



Ingeniaria da Aitor Ossa

lagunduko diguten teknologietan, baina hori dena ekoizteko behar den energia eta baliabide bolumena ikaragarria da. Beraz, epe motzean, energia gehiago kontsumitu beharko dugu, erregai fosiletatik gehiena, eta hor kontraesana sortzen da. Haize errotak ekoizteko energia asko behar da, kamioiak behar dira mendi puntara garraiatzeko, eta hori guztia gaur egun ezin da egin energia berriztagarriekin. **Eguzkia eta haizea baliatzeko teknologiaak dira gehien garatzen ari direnak. Hidrogenoa ere aipatzen da, baina ez dakigu asko horren inguruan.**

Energiaz hitz egiten dugunean askotan argindarrean bakarrik pentsatzen dugu, baina energia

termikoak askoz pisu handiagoa du gure kontsumoan. Egin kontu, munduan kontsumitzen den energiaren % 20 baino ez da argindarra, gainerakoa termikoa da, eta hori erregai fosiletatik lortzen da: petrolioa, ikatza, gasa... Eta % 80 horretan daude gas isuriak: garraioan, industrian eta abar. Horrek ere soluzio bat behar du. Nik uste dut, neurri batean, hidrogenoa ari direla planteatzen agortzen ari diren erregai fosilen ordezkorako. Baina hidrogenoak baditu hainbat zailtasun, eta azpiegitura konplexuak eskatzen ditu. **Baina badirudi erakunde publikoak eta energiaren sektoreko enpresak inbertsio handiak egiteko prest daudela hidrogenoaren teknologia eta azpiegiturak garatzeko.**

Ez da kasualitatea. Energia enpresa handien enpresa orain arte erregai fosilak izan dira. Negozio hori zailtzen eta murrizten ari denez, alternatiba bat behar dute. Baina hori guztia, nire ikuspegitik, aurreranzko ihesbide bat baino ez da, "ez dakigu oso ondo zer egin, proba dezagun, egingo ditugu inbertsio handiak, mantenduko dugu ekonomia bizirik, eta ea zer gertatzen den".

Nuklearraren eztabaida ere bizirik dago. Energia trantsiziorako teknologia egokitzat jo du Europako Batasunak.

Inondik ere ez da berriztagarria, uranioa erabiltzen baita lehengai modura. Batzuek berde kontsideratzen dute argindarra sortzen den momentuan ez dagoelako gas isuririk, baina ez da kontuan hartzen zentral nuklear bat eraikitzeke behar diren energia eta baliabideak. Sekulako azpiegiturak dira eta sekulako inbertsioa eskatzen dute dirutan eta energian. Eraikin garestien artean daude. Energia trantsiziorako estrategian lagungarri izan daitezkeela saldu nahi digute, baina zentral bat eraikitzeke 10-15 urte behar dira, eta, beraz, ez dira alternatiba bat. Gainera, hor daude teknologia horren arriskuak, albo kalteak eta hondakinak. Bizi dugun egoerara iritsi gara, neurri handi batean, ez zaielako erreparatu albo kalte horiei.

Zumaiako energia estrategiaz egin zenuen lanean datuak nahikoa nabarmenak dira: energia berriztagarrietan ahalegin handia eginda ere, ez da nahikoa jasangarritasun helburuak betetzeko. Ezinbestekoa da energiaren kontsumoa asko murriztea, baina horrek aldaketa oso sakonak eskatzen ditu.

Gizarte eredia bera aldatu behar da. Ez dakit zenbat denbora gelditzen zaigun benetako neurriak hartzeko, baina lehengaiak ere agortzen ari dira. Klima aldaketa hor dago, baina, demagun, kobreaken prezioa bizkoizten edo hirukoizten bada hurrengo urteotan, zer egingo dugu eguzki plakekin, kableekin, gure etxeekin? Eta kobrea bezala beste lehengai guztiak. Martxoaren 1ean 50 urte bete dira Erromako Klubak *Hazkunderen mugak* txosten ezaguna argitaratu zuela. Orduan zioten ez zela posible hazkunde infinitua mundu finitu batean. Oso planteamendu logikoa da. Eta jakin badakigu hala dela, baina ez dugu onartu nahi gure bizimodu eredia ez dela posible mundu osoan, materialki ezinezkoa da. Batzuek proposatzen dute aurrerantz ihes egitea, teknologia eta aurrerapen zientifikoen esku uztea irtenbidea, baina egingarria dela frogatu gabe. Jauzi teknologikoak gerta daitezke eremu jakin batzuetan, baina hemen hitz egiten ari gara sistema osoaz. Zumaiara etorrita ere, gaur egun erronka handienak politiko-filosofiko-kulturalak dira. Teknologia garrantzitsua da, erabili beharko dugu eta badugu zer hobetu, baina tresna bat da. Kontua da nola erabili eta zertarako. Erronka handia da, baina ezin zaio bizkar eman, ezin da luzatzen utzi. Erromako Klubak iragarritako kolapsoaren lehen zantzuak ikusten hasi gara: ez dago denontzat adina lehengai eta energia, eta prezioak gora eta gora doaz. Mende erdia pasa da eta, amildegira gerturatzen ari garen artean, oraindik gehienak ez daude prest mundua beste norabide batean jartzeko. Geure buru barruko txipak aldatu behar dira, ez teknologikoak. Aldatu behar da nola ulertzen dugun gizartea, nola ulertzen dugun kontsumoa eta ongizatea. Ongizatea izan dadila funtsezko beharrak asetzea, eta ez fabrikatutako desioak bete behar izatea.

Europatik datozen lege aldaketei esker, aukerak zabaldu dira energia tokian tokiko azpiegiturak sortzeko, jabetza partekatzeko, energia komunitateak antolatzen. Zumaian ere badaude proposamenak. Horrek lagunduko al du kontzientzetan eragiten?

Bai, baina ez zaigu ahaztu behar etxebizitzetako argindarraren kontsumoa energia kontsumo osoaren parte txiki bat baino ez dela. Kontsumoaren zatirik handiena garraioan eta industrian dago, Zumaian ere bai. Dударik gabe, norberak bere energia sortu ahal izatea eguzki plaken bidez eta kontzientzia sortzea garrantzitsua da, eta energiaren gaian ahalduntzen ere laguntzen du; baina horren arriskua da benetan garrantzitsua denari ez erreparatzea. Soilik plaka batzuk jarrita ez dugu benetako trantsizio energetikorik egingo garraioak eta industriak berdinduz segitzen badute. Eztabaida ez da plaka batzuk jarri edo ez. Eztabaida da zer herri eredu nahi dugun, zer bizimodu mota nahi dugun, oinarritzko beharrak nola asetuko ditugun. Nik uste dut posible dela bizimodu duina izatea gaur egun ingurumenean daukagun inpaktua asko murriztuta. Kontua da zeri ematen diogun balioa. Horregatik da, sakonean, borroka kulturala. ■■■

"HIDROGENOA ARI DIRA PLANTEATZEN AGORTZEN ARI DIREN ERREGAI FOSILEN ORDEZKO"

"ONGIZATEA IZAN DADILA FUNTSEZKO BEHARRAK ASETZEA, ETA EZ FABRIKATUTAKO DESIOAK BETETZEA"

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com asadorbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

Erlou
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Ekin
elektrotikak, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garaa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxes 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



Ilargi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrek eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

Zumaiako bilakaeran zehar paseoan

Denborarekin hazten eta zabaltzen joan den herria da Zumaia. Auzo berriak egiten joan diren heinean, herriko historian giltzatutako eraikin batzuk ere galdu dira bidean. Herriguneak azken hiru hamarkadetan izan duen bilakaera aztertu nahi izan dugu zenbaki honetan Daniel Carballoren laguntzarekin.

Testua: **Juan Luis Romatet.**

San Josetik Paolaldera eta Larretxotik poligonoetara. Hazten joan da Zumaia, eta 1990eko hamarkadan existitzen ez ziren auzune batzuk sortu dira denbora honetan. Orduko argazki batzuen laguntzarekin, eta Daniel Carballo (Zumaia, 1971) arkitektoa bidelagun dugula, herriko hirigintzaren paseo bat egin dugu, denboran eta espazioan.

Erribera kaletik abiatu dugu ibilbidea, 1996. urte hasierako argazki batekin: garabi bat ikusten da eraikin bat botatzen Eraikin horren etxabeaz zegoen Aginagalde taberna, *Patxanga* bezala ezagunagoa, eta gaur egungo Trapaiaren aitzindaria. “Alondegian etxebizitzak egin behar zituztela zabaldu zen garai horretan. Eraitsi aurretik, Patxanganeko eraikina bisitatu genuen. Fatxada berezia zuen, garai batekoa, eta egurrezko egitura zuen, baina promotoreari, noski, ez zitzaion hori gordetzea interesatzen. Ez zegoen katalogatuta, eta ez zuen gorde beharrik. Arkitektura aldetik, eraite horrek ez zuen eraginik izan Erribera kalean”.

Kale horretan bertan, Erriberan, Alondegia dago, Carballoren ustetan, azken urteetako proiektu “arrakastatsua”. “Liburutegia horra eramanda, dinamismoa sortu du, eta dinamismoa ekarri dio herriari”.

Bi delitu

Beheko plazara helduta, Zumaian egin diren bi “delitu” handienetakoak identifikatu ditu Carballok. Batetik, Odieta frontoiaren atzealdean



Ezkerretik, Torreberri eraisteko lanak, etxe berriak egiten Alai auzategian, eta Arroerreak ibaiaren erribera finkatzeko obrak.

HIRU KOADROKO EZKER PARETA IZANGO ZUEN FRONTOIA PLANTEATU ZUEN UDALAK ODIETAN

"DORREA LEHENERATZEA GAUZA BAT DA; HORMIGOIA ETA BESTE GAI BATZUK ERABILTZEA BESTEA"

egindako etxebizitzak; bestetik, Torreberriren birmoldaketa. Arkitektoa kexu da Odieta frontoi zaharra –egitura itxia eta harmailak zituena– jotzen zutelako Arau Subsidiarioetan Odieta auzuneko egoera txarraren erruduntzat. Frontoiaren atzealdean zeuden baserriak eta etxeak bota –frontoia bera ere desegin zuten, baina frontisa eta ezker hormaren zati bat gordeta–, eta etxebizitza bloke bat proiektatu zuten pilotalekuaren ezker hormatik oso hurbil. Horrek polemika piztu zuen, eta hiru koadroko ezker horma besterik izango ez zuen frontoia ere planteatu zuten orduko Hirigintzako arduradunek. “Horrek sutu eginen nau, eta nire tesia horrekin hasten da”, dio Carballok. “Zeinek diseinatu zuen eraikin hori jakinda frontoia ondoan zegoela? Frontoia hor zegoen; 1888tik hor dago. Udal teknikariek jakin beharko zuten frontoi horretaz hitz egitean ondareaz hitz egiten ari garela”.

Frontoiaren aldamenean da Torreberri. Dorre zaharra, erreta eta ia birrinduta, abandonatuta egon zen urte askoan, eta 1999an eraitsi zuten, handik urte batzuetara Torreberri berritua egiteko. Carballoren ustez, egindako birmoldatzea “oso polemikoa” da. “Dorrea leheneratzea gauza bat da; hormigoia eta beste gai batzuk erabiltzea, ordea, bestea. Eskaileren moduluak eta kristal handi horiek ez dute nahikoa duintasunarekin errekuperatzen dorre izaera. Are gehiago, dorre itxura deformatu egiten dute. Nik uste Torreberri ez zela hau; bere leiho txikiak zituen dorre bat zen. Estalpeak dorreari itsatsita egon beharko luke, eskaileren modulua handiegia da, eta ezer gutxi eskaintzen dio plazari”.

Plaza zaharkitua

Plazatik plazara, Beheko plazatik Amaiakora eta Ondartxora. Azken honetan egindako etxeak “dotoreak” direla dio Carballok, baina leku horretan egon zen Arbillaga fabrika zaharrarekin gertatutakoa “atentatu” bezala ikusten du. “Fabrika hau katalogatua zegoen; badakit ezin zela mantendu, baina erdibideko zerbait egin zitekeen ezaugarri batzuk gordetzeko”.

Amaiako plaza, berriz, zaharkitua dagoela uste du, eta buelta bat behar duela. “Plazak askoz ere irekiagoa izan behar du, eta ez hesiek



Patxanganeko eraikina eraisten, 1995. urte amaieran.

**"AMAIAKO PLAZAK
ASKOZ IREKIAGOA IZAN
BEHAR DU, ETA EZ
HESIEK
EZKUTATUTAKOIA"**

**"ITSASOAK, KOSTAK,
KLIMAK EMATEN DIGUN
LOGIKA ERABILI
BEHAR DA
HIRIGINTZAN"**

ezkutatutakoa. Plaza parke bihurtuko nuke eta gogoratu bere momentuan horraino heltzen zela ura. Amaiako plazak buelta bat behar duelakoan nago".

Paolbidean, Talaie parean (Puntakoaitza) egindako berrurbanizazioan asmatu zutela dio Carballok, eta egitura hori Inpernupea luzatzea ere ondo ikusten du. "Inpernupe zertxobai txukundu zuten, baina erdibidean geratu zirela esango nuke. Banku batzuk jar daitezke, eta miradore bezala primeran geratuko litzateke". Tartean, Kresala etxearen alboan dagoen berdeguneari errematea falta zaiola uste du. Zerbait egin daiteke hor, eserlekuak jarri, itzalpeak. Amaitzeko, egoki ikusiko luke piztina natural bat barraren hasieran. "Garai batean egon zen asmoa. Mundiala izango litzateke halako igerileku bat egitea. Itsasbeheran, itsaso txarra dagoenean, korronte asko dagoenean... bizia emango lioke leku horri".

Zubitxikia gurutzatuta, poligonoetara helduta, behin Puntanoetako etxebizitza zurieta ailegatuta, bloke hauen eta Victoriano Arrateren arteko lotura egokiena ez dela dio. "Moztu bezala egiten da, eta bi auzune sortzen dira. Puntanoeta beste modu batean integratu beharko litzateke. GKNren fabrika hor egoteak ere ez du asko laguntzen". Enpresa hori eta herrigunetik hurbil dauden beste batzuk lekualdatzearen alde dago arkitektoa.

GKNtik hurbil dago Aita Mari futbol zelaia, eta uste du hori ere leku aldatu beharko litzatekeela. "Erdi-erdian dago eta horrek



**Erronka berriei
aurre egiteko,
aldatu beharra dago.**

Iritsi da TicketBAI.

Enpresek aurrera egiten dutenean,
Gipuzkoak aurrera egiten du.


TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa   **ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro



Daniel Carballo arkitektoa, Odieta frontoian. JUAN LUIS ROMATET

aspaldi egon behar zuen zuzenduta. Ingurun Puntanoeta, frontoia eta Herri Eskolaren eraikina daude, eta berrordenatu beharko litzateke, futbol zelaia hortik atera, eta herriaren bizkarrari beste itxura bat emanda".

Handik hurbil, Arroarreka (lehen Narrondo) ibaiaren ingurua ondo berrurbanizatu dutela uste du Carballok, "nahiz eta kiroldegi aurreko arrapala beste alderaka egon behar zuen. Arrapalek marearen alde egon behar dute, eta ez alderantziz. Bestela, hemen bezala zaborra pilatzeko arriskua dago".

Kostako errepidea hartuta, Santiago ingurura hurreratu gara. Azken urteotan ingurune horretan egindako lanak egokiak ikusten ditu Carballok. "Hondartzarako sarreran, arrapalarekin-eta egindako lanak ondo daude, baita pasealekua ere. Lehen espaloi estu bat zegoen, eta orain Portutxikiraino pasealeku polita egokitu dute".

Zuloaga familiak Santiagon dituen lursailak publikoak izan behar dute, bere ustetan. "Leku pribilegiatua da, eta ez da posible haren perimetrotik ibili behar izatea gaizkileak izango

bagina bezala". Parkea edonork erabiltzeko akordioa sinatu beharko zela uste du.

Postura kritikoa

Tokian tokikotik mundura, eta abstrakziotik praktikotasunera. Arkitekturaz eta hirigintzaz hitz egiten jarrita, buruan dituen ideiak partekatu ditu Carballok. "Oso kritikoa naiz hirigintza nola egiten dugun paisaiarekiko. Zumaia polita dago polita mantentzen badugu. Baina kirol portuarekin lehen harria bota genuen, eta betelana eginda dagoenez, bigarrena botatzeko tentazioa izango dute. Itsasoak, kostak, klimak ematen digun logika erabili behar da".

Etxe berriak egin baino gehiago, herrian hutsik daudenak edo bigarren etxebizitzak merkatura ateratzeko pausoak ematearen aldekoa da, horretarako behar diren neurriak hartuta. Etxebizitza berriak egitekotan, baina, berriro Zumaiara etorrita, Puntanoetari jarraipena egitearen aldekoa da. "Ez orain bezalako Puntanoeta bat, baina bai ibaiarekin lotura izango zuena". ■■■

PUBLIZITATEA

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI TABERNA

Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR
ZUMAI A

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERÍA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAI A
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea • tel. 943-86 16 91

LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etegabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industrigunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

OSA BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAI A, S.L.

Joxe Mari Kortia Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ZKOOP Fabrika

Proiektu profesional bat edo ekimen sozioekonomiko eraldatzaile bat martxan jarri nahi al duzu?

—
Martxoak 7 >
Apirilak 4
5 saio

Astelehenak
17:00-20:00
Gizarte Zentroa, Hogarra

—
Izen-ematea:
zkoop@olatukoop.eus

—
Argitu zure zalantzak:
645 719 519

Ekonomia sozial eraldatzailea, kooperatibismoa eta lanaren burujabetza.
MARTXOAK 7

Tokiko garapen eraldatzailea, lurralde (herri) bizigarriak sortzeko bidea.
MARTXOAK 14

Komunitatea, interkooperazioa eta saretzea.
MARTXOAK 21

Talde kudeaketarako gakoak.
MARTXOAK 28

Proiektu eta esperientzia komunitario kooperatiboak. Zumaiaaren beharrak eta aukerak.
APRILAK 4



Zumaiako Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

PUBLIZITATEA



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezaretara, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Osteopatia - Fisioterapia - Haurdunaldia - Zoru pelbikoa
Psikologia - Nutrizioa - Psikomotrizitatea

www.sura.eus

Sura
ZAINITZA
OINARRIAN



Patxita Etkezaretara 17 • 688 71 85 38



Talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia
Taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN

Izusterri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 behea -tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com



Yoana 
ileapaindegia

 Amaia Plaza, 2, 20750 ZUMAIA

 943 14 32 78

AGENDA

ERAKUSKETAK

MARTXOAK 5-20

EVA FRANCO

MARTXOAK 22-APIRILAK 3

DARAHLI

APIRILAK 7-24

CARMEN PALOMERO

Oxford aretoan

DEIALDIAK

MARTXOAREN 15EAN, 24AN ETA 29AN

Parte-hartze bidezko aurrekontuak.

GURASO ESKOLAK

MARTXOAK 1

Emozioen garrantzia familian, nola zaindu seme-alaben emozioak.
Hizlaria: Leyre Cano.

MARTXOAK 22

Substantzien kontsumoa. Zer egin dezake familiak?
Hizlaria: Estibalitz Ansotegi.

APIRILAK 26

Haur eta nerabeen ongizaterako garapen osasuntsu baterako gakoak.
Hizlaria: Leyre Cano.

Alondegian, 18:00etan.

MARTXOA

10, OSTEGUNA Zine forum:

La vida era eso. Zuz.: David Martin de los Santos.
Aita Marin, 19:00etan.

11, OSTIRALA Antzerkia:

Adela eta Martirio.
Aita Marin, 20:00etan.

13, IGANDEA

Elkarrekin dantzan. Jauzien tailer irekia.
Odietan, 12:00etan.

16, ASTEAZKENA Hitzaldia:

Hitanoa hemen eta orain: adituen hitzak eta arituen ekintzak.
Oxford aretoan, 18:30ean.

17, OSTEGUNA Irakurketa:

Denda ostekoak.
Oxford aretoan, 19:00etan.

20, IGANDEA Antzerkia:

Ganbara.
Aita Marin, 12:00etan.

23. ASTEAZKENA Aurkezpena:

Geuretik sortuak ekimenaren barruan, Fito Rodriguezen *Hamazazpigarrenean* aldanez idazlan bildumaren aurkezpena.
Oxford aretoan, 19:00etan.

24, OSTEGUNA Zine forum:

Libertad. Zuz.: Clara Roquet.
Aita Marin, 19:00etan.

30, ASTEAZKENA Hitzaldia:

Adierazpen kulturalak, herrigintza eta euskara.
Oxford aretoan, 18:30ean.

APIRILA

1, OSTIRALA Antzerkia:

Lehendakari gaia.
Aita Marin, 20:00etan.

22. ^{ak}korrika


HITZEGIN

bertako
igogailuak | ascensores

GIPUZKOA
943 903 450

EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA www.bertako.eus

Paradisu Madarikatua



Zeruko belardiak

Egilea: John Steinbeck (Itzultzailea: Asun Garikano)

Argitaratzailea: Elkar

Argitaratze urtea: 1932 (euskarazko azkenekoa: 2021)

Orrialdeak: 256

Generoa: narrazioa (ipuin bilduma)



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Zeruko Belardiak, *The Pastures of Heaven* (1932) John Steinbeck-en, Nobel eta Pulitzer sarien irabazlearen, bigarren liburua izan zen. Haren aurreneko liburuak bezala, ez zuen inongo arrakastarik izan. Hori zela eta, bizimodua aurrera ateratzeko ogibide oso bitxi eta amerikarretan murgildu behar izan zuen, Depresio Handiaren ingurumarietan.

Zeruko Belardiak deitu zioten parajeari hura deskubritu zuten konkistatzaile espainiarrek; izan ere, bertako lurak bereziki emankorrak dira nekazaritzarako eta bertako haizea arnasteak bakez betetzen ditu lur haiek lehenengoz zapaltzen dituztenak. Herritar guztiek elkar zaintzen eta zelatzen duten herrixka bat da haranean. Pentsamendu magikoa eta errealitatea elkarrekin bizi dira herrixka horretan. Baina paradisu zerutiar horretako etaldeetan ez dira aingeruak

bizi, laborariak baizik, oso kezka lurtarrak dituzten laborariak. Steinbeckek lur horien istorioak kontatuko dizkigu ipuin liburu zoragarri honetan.

Herrietatik hirietako exodoa gertatzeko hamabi motibo, hamabi ipuin, pilatzen ditu liburuan. Ipuinetako pertsonaiak, bizimodu berri bati ekiteko ustez leku hoberik ez dagoelako iritsiko dira Zeruko Belardietara; baina beti aurkituko dute madarikazioren bat edo zorionaren aurka tematuko den zeraren bat. Ustezko maldizioak, patuak, gizarteak, existentziak, denborak, anbizioak edo erokeriak zapuztu eta Edenetik kanpo amaituko dute beti: badirudi zeruko belardiek etxeak eta lur sailak hustu, lugorrian utzi

KAPITULUAK INDEPENDENTEAK DIRA, BAINA ISTORIO POLIEDRIKO BAT OSATZEN DUTE

behar dituztela aldiro, berriro ere haietan bizitza oparoa erna dadin.

Kapituluak independenteak dira, baina aldi berean istorio poliedriko bat osatzen dute. Ipuinak batzuetan umorezko istorioak izango dira, beste batzuetan dramatikoa, baina guztiak idazleek gaur egun gutxitan lortzen duten gaitasunez kontatuak. John Steinbeckek bere luma zorrotzez maisuki erretratatu du herrixka horretako jende xumearen handitasuna: pozak eta larritasunak edo herri txiki batean gainerakoengandik bereizten dituen ezaugarriak izateak dituen onurak eta madarikazioak.

Xehetasun handiz erakusten dizkigu narrazioaren eszenak, film batean bageunde bezala. Ez du nahi irakurleok eszena uler dezagun soilik, eszena horretan bizi eta protagonistak sentitzen duena senti dezagun du helburu. Erakusten dizkigun argazki horien bidez irakurleok ere Zeruko Belardietako biztanle bihurtzen gaitu. ■■■

Berriz ere ilunpea etorriko da



FELIX AIZPURUA

Ez, ez naiz hasiko azken bi urteotan nagusitu den hizketarako gai bakarraz. Ordu aldaketaren inguruan baizik.

Martxoko eta urriko azken asteburuetan ordu aldaketa izaten da. Martxoan ordu bat gutxiago izaten dugu lotarako, eta urrian ordu bat gehiago lo edo parrandarako.

Energia aurrezteko balio omen du. Auskalo zenbat miloi euro aurrezten omen diren ordu aldaketa horiei esker, edo hori ikasi dugu, behintzat. XX. mendearen hasieran ikatzaren krisiak eta, geroago, petrolioaren krisialdiak zerikusia izan dute ordu aldaketa horien inguruan.

Ez naiz ekonomia edo energia iturrietan aditua, baina ez eta oilarrak, txori txikiak, arrainak ere. Horiek eguzkiaren ordutegiari jarraitzen diote. Gu, berriz, neguko ordutegian ordu bat aurrera gabiltza, eta udako

ordutegian bi ordu aurreratzen gara eguzkiarekiko.

Uztailean, iluntzeko 10:15ean eguzkia sartzen denean, 08:15 dira eguzkiaren arabera, eta bizi garen tokian Greenwicheko meridianoari jarraituz, Erresuma Batuko ordutegi bera izan beharko genuke (-1 h)

Azalpen horien ondoren, irakurle horrek, zein ordutegi nahiago zenuke? Negukoa edo udakoa?

Aurrezpen energetikoak alde batera utzita, zenbaitek iluntzeko argitasuna nahiago dute; beste batzuek, aldiz, goizeko argitasuna gogokoagoa dute. Neguko egun labur eta ilunenak pasatu direnean

**NIK BENETAN
ESKERTZEN DUT
GOIZEKO ARGITASUNA,
AISIALDIRAKO EDO
LANERAKO**

eguna zerbait luzatzen ari da, eta sartu berriak garen hilabete honetan, martxoan, ordua aldatu eta urtaro berrian sartuko gara.

Goizeko zazpiak inguruan, argitasuna izatetik berriz ere ilunpea izango dugu bueltan. Edo arratsaldeko zortziak arte luzatuko da eguna, goizetik laburtuta, noski. Borrokan hasiko gara oilarrak eta gautxoriak, zein den ordutegi egokiena erabakitzeke.

Azken urteotan albistegietan entzuten zen gaia da neguko edo udako ordutegiarekin jarraitu. Nik benetan eskertzen dut goizeko argitasuna, aisialdirako, lanerako edo balkoian kafesnea hartzeko.

Eta zuk, zer ordutegi nahiago duzu? Udan gaueko 22:00etako argitasuna, edo 21:00ak arte nahikoa da?

Erabaki hori, ordea, ez dago gure esku. Ikatza edo petrolioak erabakiko al du? Edo Wi-Fiaren tarifak?

Auskalo!! ■■■

yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla 

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA  

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com



Progresioa



JUAN LUIS ROMATET

Musika estilo batzuk gustukoak ditudan bezala, jasan ezin ditudanak ere badituz. Gorrotatu ez, hitz hori beste gauza edo kausa batzuetarako gordetzen dut. Baina bai, ezin izan dut jasan, adibidez, musika 'latinoa' –Enrique Iglesias, Ricky Martin, Maná, *Despacito* ditzosozkoa...–, heavya –lakaz betetako pop bigun eta baboso hori heavya ote da?– edota rock progresiboa, bere garaian rock sinfonikoa bezala ezagutzen zena.

Etxeko gazteena naiz, eta ohikoa den bezala, anai-arreben musika entzuten hasi eta hezi nintzen. Musikaz ideiarik ez nuen, eta Oskorri eta Benito Lertxundiren diskoetatik at zegoen (ia) guztia entzuten jarri nintzen. Bai, halako gauzak entzuten nituen umemoko bat nintzenean. Ingalaterran ditugun lehengusuek bidalitako kasete haiek onerako harritu ninduten, baina etxeko disko bilduman zeuden disko batzuk eztarrian kateatuta geratu zitzaizkidan. Yes taldearen diskoak, adibidez, behin eta berriz saiatuta ere ezin nituen amaitu: kantak ez ziren inoiz hasten/bukatzen, luzeak baino luzeagoak ziren. Ikusten da ordurako Ramonesen jarraitzailea nintzela, New Yorkeko taldea oraindik ezagutzen ez banuen ere. Emadazue 2-3 minutuko abesti bat, eta gorde itzazue sinfonia horiek zuentzako. Yes? No!

Urteekin gustuak aldatzen joaten dira –batzuen kasuan inoiz ez, eta hor segitzen dute “betiko” musika entzuten–, eta gaztetan jasaten ez nuen hura onartzeko gai naiz... batzuetan. Bale, musika kubatarra ondo dago, eta Buena Vista Social Cluben CDa gastatu egin nuen; bai, Black Sabbathen gauza batzuk gustatzen zaizkit. Rock progresiboarekin, baina, ezin dut, eta hori lagun bat dudala musika estilo hori maite ez, gurtu egiten duena. Ez du, bada, esaten 1977tik hona ez dela musika onik egin? Nola segitzen dut berekin trago batzuk hartzen? Johnny Ramonek entzungo balu...

Gauza da, eta honek beste zutabe baterako eman dezake, azken urte hauetan Youtubeko kanal batzuk ikusten hasi naizela, bereziki ordu txikietan, lo egin ezin dudanean, eta horien artean rock progresiboaren eta heavyaren jarraitzailea den estatubatuar batena dago. Egunero ez dakit zenbat bideo igotzen dituen, eta denak bi estilo horien ingurukoak dira. Zer egiten dudana nik bideo horiek ikusten? Aurpegia zuritzeko-edo, esan dezaket ingelesez direla, eta hizkuntza zertxobait praktikatzeko balio didala; ulertu eta dena egiten dut... hizkuntza, ez haren gustuak. Denborarekin eta bideoetan agertzen den jende xelebreari esker, dagoeneko kapaza naiz atzemateko zein diren rock progresiboko diskorik onenak eta kaskarrenak; azken kategorizazio horretan erantzuna erraza da: guztiak!

Hau esanda, banoa Eelsen disko berria entzutera. ■■■

**EMADAZUE 2-3
MINUTUKO ABESTI BAT,
ETA GORDE ITZAZUE
SINFONIA HORIEK
ZUENTZAKO**



ZUMAIA txartela

1234 5678 9101 1234

VISA

**ERABILI
ZUMAIA TXARTELA
ETA IRABAZI
EROSKETA BONOAK**

MARTXOAREN
18tik
APIRILAREN 8ra

5€ **10€** **20€**







ONGI ETORRI
ALOKAIURU TURISTIKOAK

**Zure etxea alokatu nahi baduzu,
guk kudeatuko dugu**

Publizitatea, etxea prestatu, bezeroari arreta, eta garbitasun lanak egingo ditugu. Eta behar duzunean etxea eskura izango duzu.

Atera etekina etxeari

 **680 33 00 62**

 ongieterrialokairuturistikoak@ni.eus

 **@ONGIETORRIALOKAIRUAK**



Kaixo, Zumaia!

Guuk gara, hemengo telekomunikazio-konpainia, eta esan nahi dizugu **gure zuntza iritsi dela Zumaia!**

Eta zer esan nahi du horrek? Dagoeneko eskuratu ditzakezula **gure tarifak betirako prezioekin eta igoyerarik gabe.**

Zuntza 600 Mb Simetriko	Mugikorra 15 GB + Dei mugagabeak
IRAUNKORTASUNIK GABE	

42 €
HILEAN
BEZa barne

BETIRAKO

Kontratatzeko, deitu:

 **900 696 430**

edo etorri:

 **Librería Otaño.** Etxezarreta 8, 20750 Zumaia.

Ertz Informatika. Plza. Eusebio Gurrutxaga 6, 20750 Zumaia.

ZUNTZA MUGIKORRA AGILE TV

guuk.

BEZa barne. 2022/04/30era arte egongo da indarrean Euskadin eta Nafarroan eskaintza hau kontratatzen dutenentzat: 600 Mb-eko Zuntz simetrikoa + Mugikorra 15 GB-rekin. Erabilgarritasuna bezeroak emandako helbidean eskura dagoen teknologiaren araberakoa da. Finkoa: linea finkoaren kuota, 5 €/hil. Dei mugagabeak Estatuko finkoetara hileroko (fakturazio-zikloa), eta 60 minutu Estatuko mugikorretara deitzeko. Zuntza + Mugikorra eskaintzak ez du iraupen-konpromisorik ez penalizaziorik izango. Nahi duzunean eman dezakezu baja zerbitzuan, baina bideratzailea itzuli beharko duzu 30 eguneko epean, edo haren kostua ordaindu (121 €). Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.guuk.eus